



SEGURAKO UDALA

Herritar orori,

Bi hilabete konfinamentu ertxian egon ondoren beste egoera batera pasatu gara azken egunotan. Konfinamentuaren bidez aurrez aurreko giza harremanak mugatu egin dira kutxatze katea ahal den gehien eteteko helburuz. Norbere eta gizarte osoaren osasuna babesteko neurri kolektiboa izan da. Datuak hobeak direnez deseskalada deitu dioten fasean sartu gara, aurrean zer izango dugun ziurtasun osorik izaterik ez badugu ere. Covid 19ak Seguran ez du orain artean beste herri batzuetan bezainbat pertsona gaixotu eta zorionez denak osatu dira. Zahar egoitzak bortitz jipotu ditu birusak, gure herriko zahar egoitzan momentuz ez da kasurik izan. Bertako langileen lana aitortu eta eskertu nahi genuke, osasun, zaintza, zein oinarritzko lanetan aritzen diren herritar guztiekin batera.

Era berean herritarrak ere eskertu nahi ditugu. Behar duenari laguntzeko bolondres agertu dena, arrisku taldeetan egon litezkeen herritarrentzat maskarillak egin eta banatu dituztenak... Orohar konfinamentu honetan arduraz ari zareten guztioi.

Hainbat jarrera desegoki ere ikusten ari gara. Oraindik ordea pandemia egoeran gaude. Arduratsu izaten jarraitu behar dugu. Kirola egitera, paseatzera, haurrekin kalera atera, tabernetako terrazetan egon, senideak bisitatu... egin ditzakegu orain, baina ezin dugu hau pasatu denik pentsatu.

Osasun adituek gomendatzen dituzten neurriak kontuan hartu eta zentzuz jokatzeari dagokigu guztioi; istituzio publikoei eta herritarroei.

Udalak planteatzen diren neurriak herrira egokitzen jarraituko du. Osasun adituek bezala, jende pilaketak ekiditea, elkarrengandik 2 metroko distantzia mantentzea, neurri higienikoak hartzea (eskuak sarri garbitzea) eta hala komeni den egoeretan maskarilla ibiltzea aholkatzen dizuegu.

Pandemia hau gogorra izaten ari da eta ondoren utziko dituen eraginak ere (osasun arlokoak, ekonomikoak, sozialak) hala izan daitezke. Elkarlanean hobeto egingo diogu aurre eta guztiok zentzuz jokatzen jarraitzea ezinbestekoa da. Beraz, horretara animatu nahi zaituztegu guztion ardura bait da egoera honi aurre egitea.

Mila esker guztioi.

Seguran, 2020ko maiatzaren 13an



Segurako Udala